



**Arartekoren 2019S-2469-18 Ebazpena, 2019ko maiatzaren 17koa. Horren bidez, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari iradokitzen zaio diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzako prestazio osagarria iraungitzeko ebazpen bat berrikustea, eskubide edo prestazio ekonomiko bat erabiltzeko betebeharra ez delako bete, bere genero-indarkeriako egoera, osasun, polizia eta judizio txostenen bidez egiaztatuta dagoena, eta adingabearen interes gorenerako eskubidea behar bezala haztatzen badira.**

### **Aurrekariak**

Herritar batek kexa aurkeztu du Arartekoan, bizikidetz-unitateari onartutako diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria iraungitzeko erabakiarekin ados ez dagoela adierazteko. Iraungitzearen arrazoia izan zen bi alditan ez zuela bete "eduki ekonomiko bi eskubide baliatzeko" betebeharra, diru-sarrerak bermatzeko errentaren maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 12.1. b). artikuluan ezarritakoa: alde batetik, bere bikotekide ohiak mantenu-pentsioa sistematikoki ez zuela ordaintzen aldizka ez salatzeagatik, eta bestetik, aurretik familia-etxebizitza zen etxebizitzan ez bizitzeagatik, haren erabilera eta gozamina adjudikatuta zuen arren. Horien bidez guraso eta seme-alaben arteko neurriak arautzen dituen hitzarmenean ezarritakoaren arabera, 2007ko urriaren 22an Epaitegian berretsi zena.

Kexagileak bere kexa-idazkiari erantsitako agirietan, alaba adingabe batekin guraso bakarreko bizikidetz-unitate bat osatzen duela egiaztatu zen. Genero-indarkeriaren biktima dela egiaztatuta du, eta bere bikotekide ohiaren urruntze-agindua du. Arrazoi horregatik, bi urtetan Ertzaintzak eskoltatu du: "*biktimaren osotasun fisikorako arrisku handia*" zegoelako, Emakumeen aurkako Indarkeriaren arloko Barakaldoko Epaitegiaren autoak adierazten duen moduan, 2013ko maiatzaren 20ko 281/2013 premiazko eginbideak. Horrez gain, kexagilea onkologia-tratamendu bat jasotzen ari da, burmuinean dituen eta operatu ezin diren tumore batzuegatik.

Hain zuzen ere, orain arte espedientearen jasotzen diren datuen arabera, 2018ko martxoaren 22an, diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria jasotzen zituen pertsona gisa, baldintzak edota betebeharra ez zituela jakinarazi zion Lanbidek kexagileari:

*-“Dagokion modalitatean, Diru-sarrerak bermatzeko erretaren titular gisa dituen betebeharrak, eta indarreko arauen arabera aplikatu beharrekoak diren guztiak beteteza.*

*Mantenu-pentsioa ez ordaintzea ez komunikatzea.*





*Ebazpena amaitu aurretik baita prestazioaren diru-sarrera bitartean, titularrari edo bizikidetzaren unitateko edozein kideri legokiokeen eskubide edo prestazio ekonomiko oro baliatzea.*“(sic)

Data berarekin, Lanbidek agiri hauek eskatu zizkion kexagileari: *“Epaitegiaren hitzarmen arautzailea, eta horren ondorengo aldaketak. Mantenu-pentsioarekin zerikusia duen demanda judiziala”.*

Eskaera hori jasotakoan, 2018ko apirilaren 13an, kexagileak alegazioak aurkeztu zituen (hala egiaztatzen du Lanbideren 2018/120264 egiaztagiria), eta, horiek batera, egokitzat jo zuen dokumentazioa aurkeztu zuen. Hor, kexagileak honako hau adierazi zion erakunde publikoari:

- Alde batetik, gurasoen eta seme-alaben arteko neurriak arautzen dituen hitzarmen bat zuela berretsi zuen, 2007ko urriaren 22tik epai bidez berretsitakoa. Hitzarmen hori geroago aldatu zen, gurasoak eskatuta, 2013ko maiatzaren 20an, bere gizarte eta ekonomia egoerak okerrera egin zuelako eta aurretik ezarritako mantenu-pentsioa ezin zuelako ordaindu. Lanbiden aurkeztutako idazkian, kexagileak erantsi zuen aitak ez zuela inoiz hitzarmena bete, ez mantenu-pentsioa, ez adingabearen bisitak eta harremana ere; aitak ez zuela inolako harremanik harekin.

- Bestalde, kexagileak Lanbideri jakinarazi zion doako laguntza juridikoa eskatu zuela 2015. urtean guraso eta seme-alaben arteko neurriak epai bidez berresteko. Hala ere, hortik aurrera, ez zuela judizialki erreklamatu pensioaren hileko ez-ordainketa bakoitza, bere bikotekide ohiaren beldur zelako, hainbat urtetan jasandako indarkeria-egoerarengatik eta salaketak ekar litzakeen ondorioengatik. Izan ere, 2013ko maiatzean babes-agindua ezarri zuen Emakumeen aurkako Indarkeriaren arloko Barakaldoko Epaitegiak, 2013ko maiatzaren 20ko 281/2013 Autoaren bidez. Hor, honako hau adierazten zen: *“ante el elevado riesgo para su integridad física...estableciéndose un dispositivo continuado de vigilancia de la víctima”.*

Zehazkiago, auto judizial horretan, hau adierazten zen berariaz: *“se puede inferir un elevado riesgo para la integridad física de la víctima (el propio imputado ha manifestado en la Secretaría del Juzgado que va a prender fuego a la casa con ella dentro habiendo sido escuchada esta expresión por la Secretaría del Juzgado cuando éste abandonaba la oficina para ser conducido de nuevo al calabozo), se considera necesario que por parte de las fuerzas de seguridad se establezca un dispositivo de vigilancia continuada de la víctima.”.* Horrez gain, genero-indarkeriaren biktima babestuaren egiaztagiria eman zioten.

Diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzako prestazio osagarria dira gaur egun bere biziraupen baliabide bakarrak adingabea dagoen bizikidetzaren unitatean. Lanbidek, inguruabar horiek adierazi arren, kexagileari jakinarazi dio judizialki eta aldizka erreklamatu behar zituela mantenu-pentsioaren ez-ordainketak (zorra une horretan 7.000 € zen), bestela, prestazio horiek eten edo iraungiko zirela. Eskaera hori betetzeko, pertsona horrek doako justizia eskatu zuen, izapide hori 2018ko



martxoaren 22an egiteko. Halaber, gurasoen eta seme-alaben arteko neurriak berriro aldatzeko eskatu zuen, adingabearen guraso-aharari dagokionez, aitak ez zuelako inolako harremanik adingabearekin. Lanbidek eskatuta kexagileak abiarazitako jarduketa hori ezagututakoan, bere bikotekide ohiak harengana jo zuen berriro mehatxuekin.

Lanbidek alegazioak eta kexagileak aurkeztutako agiri judizial eta polizialak gaitzetsi zituen, eta bizikidetzaren unitatearen diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzako prestazio osagarriaren prestazioak jasotzeko eskubidea iraungitza hartu zuen 2018ko apirilaren 21eko ebazpenaren bidez (2018/REV/015992), arrazoi hauengatik: *"Eskubide ekonomiko guztiez ez baliatzea"* bi aldiz, eta *"Sektore publikoak etxebizitza bat gizarte-aholkairuaren modalitatean erabiltzeko berme ematea(sic)"*

Halaber, Lanbidek adierazi zuen kexagileak 2015eko urriaren 1etik 2018ko martxoaren 31ra bitartean etxebizitzako prestazio osagarri gisa behar ez bezala jasotako diru kopurua (7.500 €) itzultzea eskatu zuen, iraungitzeko bigarren arrazoiaren oinarrituz, "diru-sarrera bermatzeko errenta edo etxebizitzako prestazio osagarria jasotzen duten pertsonen betebeharra" ez zuelako bete, "eskubide politikoak ez baliatzeagatik", diru-sarrerak bermatzeko errentari buruzko maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 12. artikuluan araututakoa.

2018ko ekainaren 8an, kexagileak desadostasuna agertu zuen, eta aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkeztu zuen Lanbiden prestazioak iraungitzearen aurka, bi arrazoiaren oinarrituz, alegazioen fasearen argudioak berretsiz.

Horrez gain, iraungitzeko bigarren arrazoiari dagokionez, kexagileak errekurtso horretan azaldu zuen gurasoen eta seme-alaben neurriak hasiera batean arautzen zituen hitzarmenean (2007ko urriaren 22an judizialki berretsitakoa, Barakaldoko lehen auzialdiko 5. Epaitegiko 551. epaiaren bidez), etxebizitzaren erabilera eta gozamina kexagileari eta haren alaba adingabeari ezarri zieten. Hala ere, etxebizitza, berez, bere bikotekide ohiaren amarena zen. Hori dela eta, klausula bat ezarri zen hitzarmenean:

*"...ambos progenitores acuerdan que se mantenga en el uso del domicilio hasta ahora conyugal la esposa a cargo de la hija, asumiendo ésta el pago íntegro de los gastos derivados de la misma, sin perjuicio y a salvo de los derechos que pudieran corresponder a la propietaria del inmueble".*

Kexagileak adierazi zuen bere alabarekin etxe horretan bizitzen jarraitu zuela, normaltasunez, 2007. urtetik aurrera. Hala ere, 2013. urtean, arazoak hasi zirela bere bikotekide ohiarekin, estupefazienteak hartzen hasi zelako. Horrela, mehatxuak jaso zituen harengandik eta bere amaren etxea uztea eskatu zion kexagileari. Egoerak okerrera egin zuen, eta 2013. urtean eraso zuen. Horren ondorioz, poliziarri deitzea erabaki zuen eta salaketa aurkeztu zuen.

2013an urruntze-agindua ezarrita, kexagileak bere alabarekin bizitzen jarraitu zuen etxe horretan, lehen familia-etxea zenean, 2015. urteko ekainean, bere bikotekide ohiaren amak, etxebizitzaren jabea zenak, etxea uzteko eskatu zion arte, hipotekari

ezin ziolako aurre egin eta etxebizitza Bankuaren esku geratuko zelako. Egoera horren aurrean, kexagileak, ofiziozko abokatuak aholkatuta, beste etxebizitza bat bilatzen hasi zen, bere alabak etxegabetze bat bizi ez zezan. Azkenean, errentako etxebizitza bat aurkitu zuen bere alabarekin joateko, eta horren eta inguruabarren berri eman zion Lanbideri.

Kexagileak 2018ko ekainaren 8an iraungitzeko ebazpenaren aurka jarritako aukerako berraztertze errekurtsoa (aurretik adierazitako eduki ekonomikoa baliatzeko bi betebeharrak ez betetzearen ondorioz ezarritakoa), partzialki onartu zuen Lanbidek, 2019ko otsailaren 4ko ebazpenaren bidez, errekurtsoa jarri eta 8 hilabete geroago. Ebazpenean, Lanbidek adierazten zuen Lanbidek, etxebizitzarako prestazio osagarriari zegozkion behar ez bezalako prestazio gisa jasotako 7.500 euroko kopurua erreklamatzeko "ez zela bidezkoa", eta kexagilearen alegazioak onartu zituen, ez zelako bidezkoa erreklamatzeko, kexagileak, aurretik familia-etxebizitza zena erabili zuelako, ahal zuen neurrian. Beraz, berretsi zuen, eskubide ekonomikoa baliatu zuela, Lanbideren irizpideen agiriaren arabera, 2017ko maiatzean eguneratu zuena.

Hala eta guztiz ere, Lanbidek, etxebizitzarako prestazio osagarriko eskubidearen iraungitzea mantendu zuen, diru-sarrerak bermatzeko errentarako eskubidea aitortzearekin lotuta zegoelako, osagarria baitzen, eta laguntza txostenaren bidez hauxe adierazi zuen hitzez hitz:

*2007ko urriaren 22ko 551. Epaiaren errekurtsogilearen alabari (k.g.) onartzen zaion mantenu-pentsioari dagokionez, 2015eko azaroaren 16an errekurtsogileak bere abokatuaren idazki bat aurkeztu zuen, guraso eta seme-alaben arteko harremanei buruzko neurriak aldatzeko prozeduraren berri ematen zuena, baina ez zuen aurkeztu epaiaren kipiari edo, halako rik ezean epaitegiaren idazkiri, prozeduraren egoerari eta/edo atzerapenaren arraziaiei buruzko informazioa ematen zuenik*

Bidalitako txostenean, Lanbidek argudio hauek eman zituen diru-sarrerak bermatzeko errentarako eta etxebizitzarako prestazio osagarriko eskubidea iraungitzeko erabakiari zegokionez:

*"Pentsioa ordaintzen utzi zitzaionetik bi urte baino igaro direnez eta ez denez inolako justifikaziorik eman, frogatuta gelditzen da ez dela bete Kaieneren mantenu-pentsiotik eratorritako eskubide ekonomikoa baliarazteko betebeharra. Ondorioz, errekurtsoarene ebazpenak adierazten du zuzenbidearen arabera dela DSBEa iraungitzea, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legearen 19.1. b) artikuluan jasotzen den eskubideak baliarazteko betebeharra ez betetzeagatik; zehazki, 2007ko urriaren 22ko 551. Epaiaren exekuzioa ez eskatzeagatik.*

*Idazkiaren bigarren puntuari dagokionez, errekurtsogilearen baldintzak ezin dute justifikatu adingabe bati dagozkion mantenu-eskubideak ez erreklamatzeko. Hau da, tratu txarren eta mahatxuen ondorioz ematen zaizkion babes-neurriek ez diote eragozten beharrezko erreklamazioak egitea haren alaba adingabeari dagozkion eta 2007an aitortu zitzaizkion eskubideak baliarazteko.*

*Ilido horretatik, legeria zibil eta prozesalak ezartzen du neurri horiek gauzatzeko eskaera alde batek egin behar duela. Bestalde, DSBEa arautzen duen araudiaren arabera, prestazioa jasotzeko eskubidea izateko baldintzetako bat da dagozkion eskubide ekonomiko guztiak baliaraztea, inolako salbuespenik gabe, beraz DSBEa iraugitzeko ebazpena legekotasun-printzipioaren arabera eman da”.*

Arrazoi horiengatik guztiengatik, kexagilearen bizikidetz-unitateak ez du jaso diru-sarrerak bermatzeko errentarik, ez eta etxebizitzarako prestazio osagarriak 2018ko apiriletik. Horrek, zailtasun handiak ekarri ditu familiaren oinarriko beharrak asetzeko, eta ezin izan du ordaindu bizi diren etxebizitzaren errenta zenbait hiletan. Hori dela eta, jabeak etxea uztea eskatu dio. Horrek guztiak, aurretik xehetasunez deskribatutako bizikidetz-unitatea zegoen ahultasun handiko egoera areagotu du.

Horrenbestez, uste dugunez baditugula beharrezkoak diren egitateak eta zuzenbideko oinarriak, honako gogoeta hauek egin nahi ditugu:

### Gogoetak

1. Bizikidetz-unitate bati onartutako diru-sarrerak bermatzeko errentak eta etxebizitzarako prestazio osagarriak, diru-sarrerak bermatzeko eta gizarteratzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legearen esparruan, eta besteak beste diru-sarrerak bermatzeko errentaren maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuak garatutakoak, gizarte eta lan bazterkeria-egoerak arintzea dute helburu, eta herritarren gizarte-eskubideak berariaz erabiltzeko nahikoa gizarte edo ekonomia baliabideak eta baliabide pertsonalak ez dituzten pertsonak gizarteratzen laguntzen dute (1. art.)

Emakumeek eta ardurapeko adingabeek osatutako guraso bakarreko familiek jasaten dituzte bereziki pobrezia-egoerak,, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak egindako txosten<sup>7</sup> eta diagnostikoen, eta beste erakunde batzuek<sup>8</sup> egindako txosten eta diagnostikoetan ezartzen denaren arabera.

Agiri horiek, genero-indarkeriaren biktimak diren pertsonen ahultasun-egoera berezia erakusten dute, diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren hartzaile eta titular gisa, bai baldintza mailan, bai betebeharrak mailan. Inguruabar horiek partzialki jasotzen dira ere 2017ko maiatzean eguneratutako “Lanbideren irizpide-agiriko”<sup>9</sup> zenbait ataletan.

---

<sup>7</sup>Pobrezia eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkestako emaitzen txostena (PGDI) 2016. [Hemen eskuragarri:

[http://www.lanbide.euskadi.eus/contenidos/documentacion/informe\\_epds\\_2016\\_2/eu\\_epds\\_2012/adjuntos/2016ko%20PGEI-ren%20emaitzen%20txostena%20.pdf](http://www.lanbide.euskadi.eus/contenidos/documentacion/informe_epds_2016_2/eu_epds_2012/adjuntos/2016ko%20PGEI-ren%20emaitzen%20txostena%20.pdf)].

<sup>8</sup> EMAKUNDE 2018 Txostena: “Generoaren araberako eraginaren ebaluazioa gizarte bazterketa eta txirotasunean” [Hemen eskuragarri: [http://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/politicas\\_evaluaciones\\_2/eu\\_def\\_adjuntos/exclusion\\_pobreza\\_eu.pdf](http://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/politicas_evaluaciones_2/eu_def_adjuntos/exclusion_pobreza_eu.pdf)]

2. Gure kasuan, Lanbidek ebatzi du kexagilearen bizikidetz-unitateari diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria iraungitzea, 2018ko apirilaren 21ean emandako ebazpenaren bidez (2018/REV/015992), kexagileak birritan ez duelako bete prestazioen hartzaile gisa duen betebeharra, hots, "eskubide ekonomikoa baliatzea", maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 9.8. artikuluan adierazitakoa:

*"8.- Espedientearen izapidetzea amaitu aurretik titularrari edo bizikidetz-unitateko edozein kideri legokiokeen eskubide edo prestazio ekonomikoro baliatzea..-*

Artikulu horretan, berez, eskubidearen konfigurazioa adierazten da, izan ere, diru-sarrerak bermatzeko eta gizarteratzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legearen 13. artikuluan definitzen den moduan, honetan datza prestazioa:

*"...subsidiarioa eta, hala badagokio, osagarria izango da indarreko legerian aurreikusten diren era guztietako baliabide eta prestazio ekonomikoei dagokienez, horiek titularrari edo haren bizikidetz-unitateko edozein kideri legozkiokeenean. Aurrekoarekin bat etorriz, diru-sarrerak bermatzeko errenta ezin izango da osatu, haren ezein modalitatetan, izaera bereko beste prestazio edo laguntza batzuen bidez."*

Xede horietarako, "Lanbideren irizpide-agiriaren" 9.2. atalean, 2017ko maiatzean eguneratutakoa, hauxe adierazten da: diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria jasotzen dutenek "baliatu behar dituzten eskubideen" zerrendan hauxe barne hartzen da: "mantenu-pentsioa edo osabidezko pensioa erreklamatzeari".

147/2010 Dekretuaren 31.1 a) artikulua, Lanbidek, eskubide horiek osorik baliatu direla nola egiaztatuko duen ezartzen du:

*"Ebazpen judizialak jadanik onetsi dituen baina jaso ez diren eskubideen edo prestazioen kasuan, horiek baliatu direla ulertuko da horiek eman behar dituen pertsonari dagokion ez-betetzeagatiko dagokion ebazpen judizialaren betearazpen-intzidenteari hasiera eman zaiola egiaztatzen denean".*

Hori guztia 9.3.1. atalean eta ekintza eta epe mailako irizpide agiriaren A.2. atalean ezarritako izapide eta epeetan<sup>10</sup>.

---

<sup>9</sup> [Hemen eskuragarri: <http://www.lanbide.euskadi.eus/dbe/-/informazioa/erizpideak/> ]

<sup>10</sup> "1) Doako justiziaren eskaera egitatezko banantzetik edo ordaintzen ez den hirugarren hilabetetik bi hilabeteko epean aurkeztu beharko da.

2) Doako justizia emateko edo ukatzeko Orientazio Juridikoko Zerbitzuaren ebazpena jasotzea 2 hilabeteko epean, dagokion demanda jartzeko.

3) Epai/ebazpen judiziala eman ondoren zor diren zenbatekoen ordainketa jaso izan ez balu, epaia eman eta 2 hilabeteko epean betearazteko izapideak hasi behar dira (ondasunak eta

Lanbideren irizpide-agiriaren 9.2. atalean, "Baliatu behar diren eskubide ekonomikoak", Lanbidek salbuespen hau adierazten du:

*"-Honako kasu hauetan ez da iritziko interesdunak betebehar/baldintza hori ez duela bete: Interesdunek beren eskubide ekonomikoak baliatzeko behar diren egintzak gauzatzeko ezgaitasuna (ulertzeko, erabakitzeko edo nahi dena egiteko zailtasuna) dutela (esaterako, eskizofrenia, dementzia edo gaixotasun larria izatea edota genero-indarkeriaren edota etxeko indarkeriaren biktima izatea) argi eta garbi biltzen duen txosten ARRAZOITU bat egotea oinarrizko gizarte-zerbitzuetan. Oinarrizko gizarte-zerbitzuetako txostena baliozkoa izan dadin, agintaritzak eskudunak egoera hori frogatzeko emandako txosten bat ere egon behar du (medikuaren txostena, txosten judiziala, eta abar). Salbuespen hori aplikatzeko, jasotzaileak oinarrizko gizarte-zerbitzuetara joan behar du aldiari behin, bertan jarraipen bat egin diezaioeten.*

Kexagilearen diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria iraungitzeko ebazpena eta arazoak ikusita, ez du salbuespen hori aplikatu. Hala ere, aurretik adierazi dugunez, eskumeneko agintariaren zenbait txostenetan genero-indarkeriaren egoera egiaztatzen du (agindu medikoa, judiziala eta poliziala), baina espedienteetan ez dago Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen txosten arazoitua, betebehar hori betetzeko ezgaitasuna argi egiaztatzen duena, Lanbidek arazoi horretan oinarrituz adierazten duen moduan.

Eskumen arazoak eta gehiegizko lana dituenaren argudioarekin, Oinarrizko Gizarte Zerbitzua ez dabil gauzatzen Lanbideren irizpide-agirian eskatzen den txosten hori, eragin handia duen arren, Arartekoren aurreko ebazpenetan eta erakunde honek Lanbiderekin izandako bileretan adierazi dugunez.

Hala ere, txosten horiek, Lanbidek zuzenean eska diezazkieke bere administrazio publiko batzuei, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 79. artikulua araberako, Lanbidek beste kasu batzuetan eta kexa-espedienteetan egin duen moduan:

*"1. Prozedura ebazteko, lege-xedapenen arabera nahitaezko diren txostenak eskatuko dira, eta ebazteko beharrezko irizpideak, nahitaezkozat zer manuk jotzen dituen adieraziz edo, eskatu behar badira, eskatzea zergatik komeni den arrazoituz."*

Hala eta guztiz ere, Lanbidek ebatzi du kexagilearen jarduketak bizikidetzaren unitateari onartutako prestazioen iraungitzea ekartzen duela, aurreko artikulua aplikatuz.

---

enbargoak ikertzea).

4) Dena den, 2 urteko epean (24 hilabete), izatezko banantzetik edo mantenu-pentsioa ordaintze ez denetik, dagokion ebazpen judiziala emanda egon beharko da, eta hala badagokio, zor diren kopuruek ordainduta egon beharko dute.



3. Seme-alaben aldeko mantenu-pentsio eskubidea Konstituzioaren 39.3 artikuluan dago jasota. Seme eta alaba adingabeei mantenua emateko betebeharra gurasoek daukate, banatu, dibortziatu edo ezkontza baliogabetu ondoren (KZ 92. art.). Zigor Kodea (ZK) osatzen duten delituen artean, azken urteetan estatistika judizialetan gehien hazi den delituetako bat, Zigor Kodearen 227.1. artikuluan jasotzen den mantenu-pentsioa ez ordaintzearena da.<sup>11</sup> Mota honetako delitua, Zigor Kodearen 228. artikulua ezartzen duen moduan, eragindako pertsonak edo haren legezko ordezkariak salatzen badu bakarrik jazarriko da, eta Zerga Ministerioak ere egin dezake adingabea edo desgaitua bada.

Salaketa gehienak adingabeak ardurapean dituzten amek jartzen dituzte, azken urteetan pobrezia-arriskurik handieneko biztanle-taldea dena, nazioarteko eta estatu mailako gizarte-eragile nagusien txosten eta estatistiken arabera. Horrez gain, Zigor Kodearen 131.1. artikuluan ezarritakoaren arabera, pentsioak ez ordaintzeko delituak bost urtetan preskribatzen du, eta delitua izateari uzten dionetik hasten da zenbatzen, iraunkorra delako, Zigor Kodearen 132.1.1. artikulua arabera. Hau da, pentsioaren ez-ordainketak jarraitzen duen bitartean, delitua ez da preskribatu.

Mantenu-pentsioak ez ordaintzeko zigor-delitua aldatu da azken urteetan, pentsioak ez ordaintzeari buruzko gizarte-errealitatea eta txosten eta estatistika judizialak ikusita. Horrez gain, emakumeen aurkako indarkeriaren adierazpen bat gisa hartzen da ez-ordainketa hori: indarkeria ekonomiko gisa<sup>12</sup>.

Horregatik guztiagatik, erakunde honek beharrezkotzat jotzen du une honetan Lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren titularrei mantenu-pentsioen ez-ordaintzearen aurrean, eskaeraren bidez kotasunaren eta aldizkotasunaren inguruan eskatzen dien edukari buruzko gogoeta batzuk:

---

<sup>11</sup> "Norbaitek, ondoz ondoko bi hilabetetan zehar edo jarraigabeko lau hilabetetan zehar, ezkontide edo seme-alabentzat ezarritako prestazio ekonomikoetatik edozein ordaintzeari uzten badio, eta prestazio hori onspen judiziala duen hitzarmenaren bidez edo epaile-ebazpenaren bidez ezarri bada, legezko banantzean, dibortzioan, ezkontzaren deuseztasunari buruzko adierazpenean, seme-alabatasunari buruzko prozesuan edo seme-alabentzako mantenu prozesuko kasuan, orduan, pertsona horri hiru hilabetetik urtebete arteko espetxealdi-zigorra edo sei hilabetetik 24 arteko isuna ezarriko zaio (ZKren 227.1 art)."

<sup>12</sup> Emakumeen aurkako indarkeria ekonomikoa Gizonen eta Emakumeen Berdintasunerako Legean sartu da, eta 2016ko uztailean onartu zen, Balearretako Parlamentuan. Halaber, Valentziako Erkidegoan, emakumearen gaineko indarkeriaren aurkako azaroaren 23ko 7/2012 Lege integralean jasotzen da, 3.4. artikuluan, emakumearen aurkako indarkeriaren adierazpenen artean indarkeria ekonomikoa arautzen duena: "...indarkeria ekonomikotzat hartzen da, lege honen ondorioetarako, legez justifikatu gabeko muga, gabetzea edo bazterkeria ondasunak, ondare baliabideak edo eskubide ekonomikoak erabiltzean, bikotearen bizikidetzaren esparruan barne hartzen direnak, edo bikotea banantzen denean".,



Alde batetik, Arartekok interesgarritzat jotzen du gogoratzea Europako Kontseiluaren emakumearen aurkako indarkeriaren eta etxeko indarkeriaren kontrako borrokari eta prebentzioari buruzko hitzarmenaren garrantzia, Istanbulen 2011ko maiatzaren 11n egindakoa, eta Espainiak 2014ko martxoaren 18an berretsitakoa (Istanbulen hitzarmena aurrerantzean). Halaber, parametro juridiko gisa balio beharko luke, Lanbidek egoera horietan zer esku-hartze publiko izan behar duen baloratzeko orduan. Aipatutako tresnak zenbait betebeharrak ematen ditu indarkeria prebenitzeko, biktimak babesteko eta laguntzeko. Horrela, zenbait irizpide ezartzen ditu, eta ezar daitezkeen neurriak horietan oinarritu beharko lirarteke. Zentzu zabalean, emakumearen eta bere seme-alaben inguruabarrak barne hartzen ditu, eta haien giza eskubideak eta segurtasuna aldeztari lehentasuna ematen dio.

Horrela, 18. artikuluan, aipatutako neurriei buruz haxe adierazten da:

*“Se basen en una comprensión, fundamentada en el género, de la violencia contra la mujer y la violencia doméstica, y se concentren en los derechos humanos y la seguridad de la víctima; – Se basen en un enfoque integrado que tome en cuenta la relación entre las víctimas, los autores de los delitos, los niños y su entorno social más amplio; – Estén dirigidas a evitar la victimización secundaria; – Estén dirigidas al empoderamiento e independencia económica de las mujeres víctimas de violencia; – Permitan, en su caso, el establecimiento de un conjunto de servicios de protección y apoyo en los mismos locales; – Respondan a las necesidades específicas de las personas vulnerables, incluso los hijos de las víctimas, y sean accesibles para ellos.”.*

Horrez gain, 4. atalean ezartzen du aipatutako araua, eta hori bereziki garrantzitsua da dagokigun kasuan:

*"Zerbitzu emateak ez du biktimen borondatearen mende egon behar, legezko ekintza ekiteari edo edozein delitu-egileren aurka lekukotza egiteari dagokienez".* Hau da, ezinbestekoa da zerbitzu publikoek emakume hauei eta beren seme-alabei emandako arreta eta laguntza haien giza eskubideak aldezteko eta segurtasuna babesteko egitea, eta ez egotea ustezko erasotzailearen aurkako legezko ekintzak hastearen mende. Aipatutako xedapenek mota honetako indarkeriaren biktimak diren emakumeek sentitzen duten beldurra besterik ez dute aitortzen, erasotzailearen aurkako legezko ekintzak ekiterako orduan blokeatzen dituenak. Beraz, hori ez da eragozpena izan behar zerbitzu publikoek emakumeak artatzeko eta babesteko, indarkeria matxistako biktimak gisa, beren seme-alabekin batera.

Istanbulen hitzarmena genero-indarkeriaren arloan berriki egindako estatu hitzarmenean eta genero-indarkeriaren aurkako Estatu-ituna garatzeko premiazko neurriei buruzko abuztuaren 3ko 9/2018 Errege Lege Dekretuan jaso da.

Bestalde, 2019ko apirilaren 3an, Berdintasuneko Sektore Konferentziak, gaitzen duen titulua onartu du, biktima izaera egiaztatzeko mekanismoak handitzen dituenak, gizarte- eta lan-prestazioak eskatzeko, salaketa ezarri behar izan gabe.



Zentzu horretan, eredu erkidea diseinatu eta adostu da, administrazioaren egiaztagiri hori lurralde osoan bateratzeko.

Horrenbestez, Arartekoren ustez, Lanbidek nahikoa haztatu ditu kexagilearen inguruabarrak, adingabe bat ardurapean duen genero-indarkeriaren biktima izateagatik, ad hoc egiaztatuz, babes-aginduarekin, eskolta, eta osasun-arazo larriak izan dituen azken urteetan; txostenek horrela egiaztatzen dute.

Kexagileak azkenean gurasoen eta seme-alaben arteko neurriak gauzatzea eskatu zuen 2018ko martxoaren 22an, Lanbidek eskatuta, erakunde publikoak audientzia-izapidea hasi zuela jakinarazi ondoren, diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren hartzaile gisa zituen baldintzak edota betebeharrak ez betetzeagatik. Ez zituen aurretik eskatu, eta hala adierazi zuen erakunde publikoaren aurrean prozeduraren zenbait fasetan egindako zenbait idazkitan, genero-indarkeriaren testuinguruarengatik, mehatxuengatik eta aurretik deskribatutako gurasoen eta seme-alaben arteko gainerako neurriak ez zirelako bete. Testuinguru hori kontuan hartuz, Arartekoren ustez, baldintzak egokitu beharko litirateke.

Aukerako arautegiaren testuinguru hau kontuan hartuz, beraz, Lanbidek egoera horiek beste modu batera hartu beharko lituzke. Horren arabera, genero-indarkeriaren biktimek mantenu-pentsioa aldizka eta sistematikoki ez bada ordaintzen, ez badute salatzen, seme-alaben aldeko mantenu-pentsioa ez jasotzeaz gain, Lanbidek zehatu ere egiten ditu, beren oinarrizko beharrak asetzen dituzten prestazioak iraungiz, diru-sarrerak bermatzeko eta gizarteratzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legearen 19.1 b). artikuluan eta diru-sarrerak bermatzeko errentaren maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 12.1 b). artikuluan ezarritako betebeharraren arabera, "prestazioak irauten duen bitartean, egokitu ahal zaion edo bizikidetzaren unitateko edozein kideri dagokion eskubide edo prestazio ekonomiko oro baliatu behar dituelako".

Hain zuzen ere, kexagilea, genero-indarkeriaren biktimaren egiaztagiria eta adingabe bat ardurapean duena, diru-sarrera ekonomikorik gabe, eta gizarte-bazterkeria egoeran dagoena, hiru modutara zehatzen dute: bere alabaren mantenu-pentsioa ez diote ordaindu hainbat urtetan (aitak 7.000 euro zor dizkio); bakarrik egin behar dio aurre, aurretik deskribatutako indarkeria egoeran eta osasunik gabe, bizikidetzaren unitatearen oinarrizko beharrak asetzeari eta Lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarriko eskubidea iraungitzeari, pensio bat gauzatzeko eskaera ez aurkeztu ez izanagatik; horrek, aurretik egiaztatutako historiala ikusita, jasaten zuen indarkeria areagotu zezakeen arren. Horrez gain, kasu honetan, epai judizialak eragindako gauzatzeko ekintza ez zegoen iraungita. Prozedura Zibilaren Legearen 518. artikuluan arabera: *"Epaian, eta transakzio judiziala nahiz prozesuan lortutako hitzarmena onetsi duen ebazpen judizialean, bai eta tartekaritza-ebazpenean ere, zein akzio betearazle oinarritu eta hori iraungiko da, epaia edo ebazpena irmo bihurtu eta hurrengo bost urteetan, kasuan kasuko demanda betearazlea jarri ez"bada.*". Mantenu-pentsioa ez ordaintzea zigortzen duen delitua ere ez da preskribatu.



Hori guztia biktimak izaten duen alferreko arriskuaz ahaztu gabe.

Haztapan hori ezinbestekoa da aitak ez betetzeko duen borondatea egiaztatuta geratu denean. Gure ustez, oso kontuan hartu behar da kasu honetan, eta antzekoetan, araua egiazko egoera jakin baten aplikatzen denean, behar bezalako berdintasuna bilatuz, zuzenbidearen eta eskatutako iturrien gainerako printzipioekin batera datorrena, kasua zuzentasunez konpontzea ekartzen duelako.

4. Aurretik adierazitakoa kontuan hartuz, Arartekorentzat interesgarria da hemen egindako analisia berriro errepikatzea: *Diagnostiko-Txostena, Lanbidek Diru-Sarrerak Bermatzeko Errentaren eta Etxebizitzarako Prestazio Osagarriaren prestazioak hobeto kudeatzeko proposamenak jasotzen dituen, 2017*, honi buruz: *“egiaztatu egin da beharrezkoa dela bi sistemen arteko lankidetzaz-esparru egonkor bat ezartzea, pertsonen beharrak osorik ase ahal izateko, batez ere gizarte-bazterkeria arriskuan dauden kolektibo batzuei edo diskriminazioa jasaten duten edo adinagatik ahultasun egoeran dauden, indarkeria jasandako, mugaketa funtzionalen bat duten edo gutxiengo kultural baten kide izateagatik diskriminazioa jasaten duten kolektibo batzuei dagokienez, beste zailtasun sozial batzuen artean”*.

Espediente hau aztertzean, genero indarkeriaren biktima den emakume bat bezalako pertsona oso ahulgarri bati arreta ematen dioten zerbitzu publiko ezberdinen arteko koordinaziorik egon ez dela egiaztatu da, eta horrek existitzen diren koordinazio neurrien ebaluazio kritikoa egitea exijitzen du.

Arartekorentzat, zentzu horretan, interesgarria da gogoratzea genero indarkeriaren aurkako babes osoko neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoa gogoratzea, zioen azalpenean hauxe adierazten duena:

*“Los poderes públicos no pueden ser ajenos a la violencia de género, que constituye uno de los ataques más flagrantes a derechos fundamentales como la libertad, la igualdad, la vida, la seguridad y la no discriminación proclamados en nuestra Constitución.”*

Era berean, emakumeen eta gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 62. artikuluan, 2. atalean, etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen biktimak artatu eta babesteari buruzkoan, VII. kapituluan, emakumeen aurkako indarkeriari buruzkoan, erakunde arteko koordinazioari buruz aritzean, hauxe adierazten da:

*1.-Autonomia Erkidegoko Administrazioak gai honetan eskumenak dituzten gainerako euskal herri-administrazioekin erakunde arteko lankidetzaz-akordioak egin daitezten sustatuko du; horrela, etxeko tratu txarrak eta sexu-erasoak gertatzen diren kasuetan, erantzuna koordinatua eta eraginkorra izango da, eta biktimei laguntza integrala eta kalitatezkoa bermatuko zaie. Era berean, gai honetan eskumenak dituzten gainerako erakundeekin ere lankidetzarako bideak bilatu beharko dira.*

*2.- Lankidetzak-akordio horietan, Autonomia Erkidego osorako homogeneous izango diren jarduketak-irizpideak edo -protokoloak finkatuko dira, era horretako kasuetan dihardutenei zuzenduak. Gainera, mekanismo batzuk ezarriko dira akordiotan, aldeek konpromisoak betetzen dituzten jarraipena egiteko eta ebaluatzeko.*

Halaber, genero-indarkeriaren arloan, berriki egindako Estatu Ituna ere aipatzen dugu, 2. ardatzean, koordinazioa hobetzea proposatzen duelako, bigarren mailako biktimizazio arriskua saihesteko eta biktimek erakundeetan duten konfiantza hobetzeko: *"La mejora de la respuesta institucional a las víctimas de violencia de género a través de la coordinación y el trabajo en red. Una buena coordinación entre las autoridades y organismos responsables en la lucha contra la violencia de género resulta indispensable para obtener resultados satisfactorios. Ello obliga a introducir medidas dirigidas a mejorar la respuesta institucional a todos los niveles maximizando el uso de los recursos disponibles, promoviendo recursos de apoyo en el ámbito local, perfeccionando los protocolos de actuación y de comunicación entre los diferentes agentes intervinientes con el fin de evitar el riesgo de victimización secundaria y mejorando la confianza de las víctimas en las instituciones."*

Duen garrantzia erakusteko, aurtan, Emakumearen Izaera Juridiko eta Sozialaren Batzordearen 63. bilkura (CSW65), Nazio Batuen egoitzan izaten ari da, New Yorken, 2019ko martxoaren 11tik 22ra bitartean, eta hauxe izan da gai nagusia: *"Los sistemas de protección social, el acceso a los servicios públicos y la infraestructura sostenible para la igualdad de género y el empoderamiento de las mujeres y las niñas"*.

Horrenbestez, dagokigun kasuan, eta antzeko beste batzuetan, non ebazpenen aurkako kexak aurkezten diren Ararteko honetan, aurretik adierazitakoa kontuan hartuz, administrazio publiko batek genero-indarkeriaren biktima den emakume bat babesteko ezarritako neurriak eraginkorrak ez direla ikusten dugu, beste administrazio baten jardunarengatik edo harekin dagoen koordinazio faltarengatik. Horren adibidea dugu diru-sarrerak bermatzeko errentaren edo etxebizitzarako prestazio osagarriaren ordainketa etetea, 8 hilabetez, etete horrek emakume langabe batengan izan ditzakeen ondorioak kontuan hartu gabe. Gainera ez du bestelako sarrera-iturririk oinarritzko beharrak asetzeko, eta bere ahultasun egoera, indarkeria, mehatxuak eta osasun-egoera larria egiaztatu du, adingabe bat ardurapean izanda.

5. Dagozkion gogoetak azaldu ostean, erakunde honek Arartekoaren apirilaren 8ko 2/2015 Gomendio Orokorrean adierazitako elementu garrantzitsuen eragina errepikatu nahi du, hau da, politika publikoetan adingabearen interes nagusia kontuan hartzeko betebeharra dagoela; bereziki, diru-sarrerak bermatzeko sistemari dagokionean. Hor, arautegiaren aplikazioa aztertzen zen, haurren esparruan erabaki diren nazioarteko tresnak kontuan hartuz, eta adingabearen interes gorenerako eskubidearen garrantzia berretsi du; interes hori gure ordenamendu juridikoan ageri da (Nazio Batuen 1989ko Konbentzioa, Haurren Eskubideei buruzkoa; uztailaren



22ko 8/2015 Lege Organikoa; urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoa). Horrez gain, erakunde honek apirilaren 8ko 2/2015 Gomendio Orokorrean aztertu zuen printzipio horrek prestazioetan duen eragina, politika publikoetan adingabearen interes nagusia kontuan hartzeko betebeharra, bereziki, diru-sarrerak bermatzeko sisteman azpimarratu zuenean.

Izan ere, Arartekok ofiziozko jarduketa bat ere hasi zuen 2018an, genero-indarkeriaren testuinguru batean bizi diren neska-mutilen egoerari buruz. Hor, xede nagusia genero-indarkeriaren biktimak diren haurren berri ematea bazen ere, hauxe adierazi zuen: *"...para acabar con la lacra de la violencia machista hay que "remover la conciencia de la sociedad en su conjunto y sensibilizar a las distintas administraciones implicadas para que se trabajen siempre con los dos enfoques: género e infancia"*.

Horregatik guztiagatik, eta ondorio gisa, erakunde honen ustez, Lanbidek, "eskubide ekonomiko guztiak baliatzeko" betebeharraren interpretazio estentsiboa egin du kexa-espeditate honetan. Horren ondorioz, kexagileari eta bere alaba adingabeari aitortutako diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria irautsi die, ahultasun-egoera handian badaude ere, eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 4. artikulua ezarritako behar bezalako proportzionaltasunik gabe:

*"1. Administrazio publikoek, haien eskumenen barruan dihardutela, eskubide indibidualak edo kolektiboak gauzatzea murrizten duten neurriak ezartzen badituzte edo jarduera bat egiteko betekizunak eskatzen badituzte, proportzionaltasun-printzipioa aplikatu beharko dute eta murrizketa txikiena eragiten duen neurria aukeratu beharko dute, interes publikoa babesteko beharrezkoa dela arrazoitu eta lortu nahi diren helburuetarako egokia dela justifikatu, betiere diskriminazioa eragiten duten tratu-desberdintasunak baztertuz. Halaber, lortutako eragin eta emaitzak ebaluatu beharko dituzte aldizka. Arartekoren ustez, aurretik adierazitako argudio guztiak baloratu beharko liriteke, eskubide ekonomiko bat baliatzeko betebeharra ez dela bete interpretatzerako orduan.*

Horrenbestez, eta otsailaren 27ko 3/1985 Legeak -Ararteko erakundea sortu eta arautzekoak- 11. b) artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, honako gomendioa luzatzen zaio Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari:





## IRADOKIZUNA

Arartekok iradokitzen du ebazpen honen goiburuan adierazitako kexagilearen aldeko diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria iraungitzea erabakitzen duen ebazpena berrikustea, pertsona horrek, eduki ekonomikoko eskubide edo prestazio bat baliatzeko betebeharra bete duelako; kontuan hartzen badira, behar bezala, kexagilearen genero-indarkeriaren egoera (osasun txostenen, txosten polizial eta judizialen bidez egiaztatu dena) eta adingabearen interes gorenerako eskubidea.

